



Yves Rocher
Horóscopo de la Belleza. Descuento - 50%



Seguro de Salud desde 23€
Cámbiate a Néctar y te regalamos 2 meses en tu seguro de salud.



Seguro de coche Mutua
DUO: Tráete a tu familia y le damos 100€.

eu es en fr

Erregistra - Saioa hasi

Bilatu

Blogs euskera

Euskara

Euskara

Euskararen bloga: euskara sustatzeko ekimenak, euskararen aldeko kanpainak, herriz herri egiten diren gauzak... eta euskararen aldeko ekintzak biltzen dituen tokia.

- [Orrialde nagusia](#)
- [Harpidetza](#)
-

Idatzi hemen bilatzeko...

[Orrialde nagusia](#) > [Euskara ikasi, euskal kultura](#) > Sagardo denboraldian patrikan eramateko eskuliburua: Txootx!

Sagardo denboraldian patrikan eramateko eskuliburua: Txootx!

2013(e)ko Urtarrilak 9 [Ane Santesteban Iruzkina](#) bat egin [Iruzkinetara joan](#)

Me gusta

A 91 personas les gusta esto.

0

Sagardo denboraldia ate joka dator. [Hernaniko txotx denboraldia](#) igandean hasiko da [Gazteako Dida](#) irratsaioko lagunaren eskutik, eta [La Oreja de Van Gogh](#)ek irekiko dute, berriaz, urtarrilaren 16an, [Astigarragako sagardo denboraldia](#). Hortik aurrera [Gipuzkoaldeko sagardotegiak](#) ez dute atsedetik hartuko. [Euskararen blog](#) honetako kideok ere **sagardo berria** dastatzeko asmoa dugunez, **sagardotegi iko hiztegia** dakarkigu gaur gurerara. Sagardoaren inguruan dena dakizula uste al duzu? ;) **TXOOOOOOOOOOOOOTX!:-)**

9 tweets

retweet



Kupelak Sagardotegian. Argazkia: Txinbo

Txotx denboraldirako hiztegia

SAGAR: Sagarrondoaren fruitua, itxura biribileakoa, mami sendokoa eta urtsua, jateko edo sagardoa egiteko erabiltzen dena.

SAGARRONDO: Sagarrak ematen dituen fruta-arbola.

SAGARDO BERRI: Aurtengo sagardoa. Horregatik, "Gure sagardo berria" esanez hasten da sagardotegi denboraldia.

SAGARDO ZAHAR: Iazko sagardoa.

URRE KOLORE: Sagardoaren kolorea.

PITTARRA: Sagardoa eta ura erdibana nahastuta egiten den edari ahula.

MUZTIO: Estututako sagarrak ematen duen zukua, hartzidurak edo irakinaldiak medio sagardoa bilakatuko dena.

SAGARDOTEGIA: . Sagarra sagardo bihurtzeko baliabideak dituen, sagardoa egiten, dastatzen eta saltzen den lekua.

TXOTX: Sagardotegian txotx garaian kupel bat ireki aurretik sagardogileak ozen botatzen duen deia da.

TXOTXA: Kupelaren aurrean gaudela, probatzeko irekitzen den zuloa ixteko erabiltzen den ziria.

KIZKI: 60 zentimetro inguruko makila, muturrean iltze oker bat duena eta sagastian sagarrak banan-banan lurretik biltzeko erabiltzen dena.

OTARRE: Sagarrak biltzeko erabiltzen den kirtetik gabeko zumezko ontzia.

SAGARRA JOTZE: Eskuz edo mekaniko sagarra lehertzea.

MATXAKA: Sagarra jotzeko makina, sagarra lehertu ahala sagar-patsa askara joaten da.

PRENTSAK EDO PISOIAK: Sagarra jotzeko erabiltzen zen zurezko mailu handia.

PATSA: Sagarra jo ondoren geratzen de sagar txikitua.

DOLARE: Sagardoa ekoizten den eraikina edo lekua.

TXINPARTA. Txotxetik edo botilatik sagardoa edalontzira botatzerakoan ateratzen den gas karbonikoa.

AMA: Sagardoan geratzen den hondarra.

KUPELA: Sagardoa egiteko 1.000 litro baino edukiera handiagoko eduki-ontzia.

BARRIKA: Sagardoa gordetzeko erabiltzen den ontzirik txikiena.

UPATEGIAK: Upelak dauden tokia.

BARRIKOTEA: Neguaren hasieran ospatzen zen afari-jai, sagardogintzako lanak bukatu ondoren egiten zena.

ZIZARRA: Ondo heldu gabeko sasoi-hasierako sagarrekin egiten den edari gozo lodia.

Badakizu, kontuan izan, eta beharrezko bada, patrikan gordeta eraman hurrengo sagardotegira eskuliburu hau. Eta nola bestela, guziok dakigun kanta ezagun baten zatitxo batekin agurtzen gara gaurkoan:

*Kupela, kupela
sagardoan hotela
kupela, kupela
zaindu ezak horrela.*

Hemen **Kupela** taldeak kantaren inguruan egindako bertso "moderno":



Categories: [Euskara ikasi](#), [euskal kultura](#) Tags: [astigarra](#), [hernani](#), [sagardo](#), [sagardo denboraldia](#), [sagardotegiak](#), [txotx](#), [txotx denboraldia](#)
[Iruzkinak \(0\)](#) [Aipuak \(0\)](#) [Iruzkin bat egin Aipua](#)

1. Momentuz ez dago iruzkinik.

1. Momentuz aipurik ez.

<input type="text"/>	Izena (beharrezkoa)
<input type="text"/>	E-posta (ez da publikoa izango) (beharrezkoa)
<input type="text"/>	Webgunea